

Eguneroko sinbolismoari lotuta


Amaia Iturbidek, Juan Modesto Arrietak eta Eneko Aizpuruak liburua bana atera dute Erein argitaletxearekin

Gorka Erostarbe Donostia

Bestelako generoak ere landu ditu, baina batez ere poesian nabarmendu da Amaia Iturbide (Bilbo, 1961). Bosgarren poema liburua du *Eszenatikietako aztarnak hasien direnean*. Ereinekin plazaratu berri duen lana. Bere poemagintzan sinbolismoak beti izan du indar berezia, baina sinbolismo horrek izan du bilakaerarik hasieratik gaurdaino, egilearen beraren hitzetan. «Hasierako sinbolismo mugagabe edo urrun batetik egunerokotasun bati arikritako sinbolismoraino doa. Sinbolismoak ere errealtatearen parte baitira».

Liburua zazpi ataletan banatu du Iturbidek. *Aurrestreinaldiak baso uraz*, *Argihunen egoitzan*, *Lorategi islak*, *Posillo desfleak galerietan barrena*, *Oroimen arkeologikoak*, *Ahots hondarretik edaten eta Eskutitzen eta hilarrien artean* dira zazpi horien izenburuak. Oihartzun eta erreferentzia asko dituen liburua da. *Eszenatikiek* eta pertsonatek dute lekua poematan. Lekua dute kubismoak, espresionismoak, *vintage*-ak, Picassok, Laboak edota Letek Iturbideren olerkietan.

Kontraesanaren presentzia poetikoak ematen dio jarraitutasuna bere poemagintzari, besteak beste, berak orain arte argitaraturiko beste lanei lotuz. «Adibidez, kontsumismoaren gehiegikeriak kritikatzan ditud, baina gero, pop mugimendua azaltzen dut. Arlo



Eneko Aizpuru, Juan Modesto Arrieta eta Amaia Iturbide, atzo, Donostian. GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

kolokiala jorratzen dut, baina kulturalismoa ere bai».

Bi 'opera prima'

Berandu hasi zen idazten Juan Modesto Arrieta (Zarautz, 1949), 50 urteak igaroak zituela. Azken hamar urteetan ipuinak idatzi izan ditu, eta baita makina bat sari eskuratu ere. Euskal Herriko Unibertsitatean matematika irakasle jardun zuen, eta 60 urterekin erretiroa hartzean denbora gehiago izan du idazketari eskaintzeko. Azken urteotan idatzitako ipuinak bildu ditu, hain zuzen ere, *Izen bereziak* estreinako ipuin liburua.

Liburua 11 ipuinek osatzen dute, eta gehienek aipatzen dute izenburuan protagonistaren izen berbera. Egileak bere izenarekin beti izan omen du «auzi» moduko

bat: «Gure inguruan begiratzea nahikoa da beste izen batekin imaginatu ezin ditugun pertsonaiak badirela konturatzeko, izana izenean errotua dutenak, alegia. Eta irakurlea harira eramateko nire istorio propioa kontatu nahi diot, beti ibili naizelako nire izenaren eta izanaren artean erdibitua, nire nortasun propioa bitan banatuta».

Gai gehienak «betierekoak» dira, Arrietaren hitzetan. «Amodioa, desamodioa, heriotza, bizitza... baina badira gai bereziak ere, komiki batetik abiatutako lapurretaren baten istorioa, esaterako».

Buruan zuen istorioa kontatzeko genero beltza aukeratu du, ostera, Eneko Aizpuruak (Lazkao, 1976). *Erraids* du estreinako nobela, eta bere jaioterrian kokatu du

istorioa. Magrebtar gizaseme bat labankadaka hiri dute Lazkao. Abokatu batek hilketa argitzeko eskatu dio Mikel Egileor kazetariari. Ikerketak ezkutuko interes zikinen, negozio ilunen eta eraldako etorkinen errauntsak lurpetik atera eta denen bistan haztuko ditu ustelkeriaren kiratsa bazter guztietara zabalduz.

«Duela hiru bat urte gazte etorkinek eragindako sute batzuk izan ziren zenbait harrera etxetan, eta komunikabideetan pil-pilean egon zen gaia, eta egun ere hala dago. Pentsatu nuen gai hori eraman zitekeela nobela batera». Aizpuruak oso gustukoa du genero beltza, eta gai hori lantzeko egokia iruditzi zitzaion genero hori baliatzea. Zuzenbideko lizentziaduna da Aizpuru, eta itzulzaila lanbidez.

→ Laburrak

'Ohe azpiko zera' eta 'Izena duena' laburrak, sarituak

ZINEMA > David Zabaia lekeitiarrak zuzendutako *Ohe azpiko zera* eta Joseba Ueberuaga gernikararen *Izena duena* film laburrak larunbatean estreinatuko dituzte Lekeition, Zine Bileraren programazioaren barruan. Bi lanok lehenengo Benito Ansola Beka irabazi dute, eta lau mila euroko laguntza jaso du bakoitzak garatu ahal izateko. Beka horiek Topagunea Euskara Elkartearen Federazioak sortu ditu.

Badiotak dio «ezinezkoa» dela Txillida Leku erostea

ARTEA > Ikerne Badiola Gipuzkoako Kultura diputatuak elkarizketa batean aipatu du Txillida Leku erostea «ezinezkoa» dela gaur egun. Hurrengo udaberrietik aurrera museoaren atek zabaltzea da erakundeek duten lehentasuna, Badiolaren hitzetan. Egungo egoera ekonomikoak museo erostea galarazten du, kultura diputatuak adierazi duenez.

Aitor Arrieta gailendu da auresku txapelketan

DANTZA > Iragan larunbatean jokatu zen Pasai Donibanen Gipuzkoako Auresku Txapelketa. Aitor Arrieta errenteriarak irabazi zuen saila, 119,54 puntuekin, Iker Larunbe (119,45 puntu) eta Aitor Aserenjoren (103,64 Puntu) aurretik. Doinu Zaharren txapelketan, berriz, Nagore Indakoetxea errenteriarra nagusitu zen (116,76 puntu), Izar Etxeberriaren (109,16) aurretik.

Easo abesbatza, Ipar Osetian abendu hasieran

MUSIKA > Easo abesbatzako 23 kantari Ipar Osetiara joango dira abenduaren 2tik 6ra, Vladikavkaz hiriburuan bi egunetan Larissa Gergieva Invites jaialdian parte hartzeko. Larissa Gergieva musikariarengandik berarengandik jaso zuen gonbita Easo abesbatzak, harekin egindako elkarlan baten ostean.

The Free Fall Band nagusi Bilbo Hiria lehiaketan

MUSIKA > Pop eta rockaren alorrean, Bartzelonako The Free Fall Band taldeak irabazi du aurtengo Bilbo Hiria lehiaketa. Metalaren esparruan, Echovolt talde espainiarra gailendu da, eta Bestelako Joerak izeneko atalean, Dr Skyloop bikote bizkaitarra. 5.000 euroko saria jasoko dute lehen biek.

Zintzotasuna oinarrian

Kritika

Antzerkia 'Emabide'

Lekua: Donostiako Lugaritz aretoa.
Eguna: Azaroak 27.

Agus Perez

Aurtengo Translatines festibalaren harribitxi nagusia izan zen emakume maputxeek jokaturiko *Niputrem* (Ene arbasoak) antzezlan antropologiko eredugarria, eta haren harira sortu zen *Emabide* izeneko, Euskal Herriko zenbait emakumeren bizipenen inguruan egina. Jatorrizko ideia erantzean Chimeres konpainia izan

nik, Txomin Hegi arduratu da taula gaineko antzezlearen hautaketaz, Terexa Lekunberrerekin batera, eta hura ere izan da Didier Ruiz zuzendariaren laguntzailea.

Izan ere, Ruiz espezializatuta dago antzezle ez profesionalekin lan egiten eta, antzerki dokumentalaren printzipioei jarraituz, taula gaineko bederatzi emakumeek apaltasun osoz azaldu dizkigute beraien bizipen aberatsenatariko zati txiki batzuk, beste munduko ezer ez balira bezala. Haien guztien artean, berriz, paisaia gizatiar eder eta mamitsua ehundu dute, beren ahots politikin abesturiko kanta herrikoi ezagun batzuetan bilduta.

Laneko dramaturgia arinaren elementu nagusiak gogoetarako isilumeak, protagonisten presentzia eszeniko sendoa eta solasaldien erritmo pausatua izan dira, baina horren guztiaren oinarrian hiru belaualditako emakumeen zintzotasun erabatekoa egon da, denari esangura ematen eta geure bihotz eta erraieraraino bere bidea egiten. Bide horretatik, beren bizitzetako gertakizun harrigarri askoren berri izan dugu

—gehienetan euskaraz eta beste batzuetan frantsesez, arrazoi bat edo bestea dela medio—, baina horren guztia erantzean gertakizun hunkitu gaituena izan da beraien ahots eta begietatik jaki-

tea beren lurrarekiko eta itsasoa- rekiko duten atxikimendu itzela. Ikusleek ere beraien hunkidura agertu dute, txaloak joz agerraldi bakoitzaren ostean, eta Donostiako emanaldian Baionakoaren kontrako fenomeno gertatu da, han espresuki eskatu baitzigu- ten emankizuna txaloekin ez etetea. Orduko hartan osotasun eta indar handiagoa hartu zuen guztiak, baina Donostiakoan ere ulertzekoa zen ikusleek bereziki eskertu nahi zutela emakume haiek guztiek emandako mezu sendoa, hitz hauekin laburbildu genukeena: «ni hau naiz eta munduko leku honetan jarri ditut nire erroak, horrek dakar- tzen ondorio guztiez jabetuta».